


**APIRILA-EKAINA**  
**ABRIL-JUNIO**  
**2023**





Argitaratzailea | Edita: Vitoria-Gasteizko Udala / Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

Udal Antzoki Sarea | Red Municipal de Teatros

Inprimatzailea | Impresión: Gráficas Irudi

Lege Gordailua | Depósito Legal: VI-404/07

Orr./Pág.

ANTZERKIA / TEATRO			
apirilak 21 abril	ostirala / viernes	<b>Paraíso perdido</b> Teatre Romea, Grec 2022 Festival de Barcelona, Centro Dramático Nacional	6
maiatzak 12 mayo	ostirala / viernes	<b>Ojos que no ven</b> Entrecajas Producciones	7
maiatzak 20 mayo	larunbata / sábado	<b>Amistad</b> Teatro Español, Octubre Producciones, García-Pérez Producciones	8
maiatzak 25 mayo	osteguna / jueves	<b>El beso de la mujer araña</b> Pentación Espectáculos	9
ekainak 1 junio	osteguna / jueves	<b>Las guerras de nuestros antepasados</b> Pentación Espectáculos	10
EUSKERA			
apirilak 19 abril	asteazkena / miércoles	<b>Zeozertan dabil baina ez dakit zertan</b> Metrokoadroka	11
maiatzak 10 mayo	asteazkena / miércoles	<b>Hau ez da gerra bat</b> Thusia, Piszifaktoria, Principal Antzokia	12
UMORE GIROAN / POR HUMOR AL ARTE			
ekainak 16 junio	ostirala / viernes	<b>Los días ajenos de Bob Pop</b> El Terrat	13
ekainak 23 junio	ostirala / viernes	<b>¡Ay, Carmela!</b> Faraute Producciones	14
DANTZA / DANZA			
maiatzak 13 mayo	larunbata / sábado	<b>Ballet Nacional de Cuba</b>	16
ekainak 3 junio	larunbata / sábado	<b>El lago</b> LaMov	17
ekainak 8 junio	osteguna / jueves	<b>Imaginarios posibles</b> Atalak 2.0. Inés Aubert	18
DANTZA SAREAN (VI. Edizioa / VI edición)			
maiatzak 4 mayo	osteguna / jueves	<b>Los Perros</b> Led Silhouette, Marcos Morau	19
maiatzak 12 mayo	ostirala / viernes	<b>Abundance</b> Osa+Mujika	20
ekainak 2 junio	ostirala / viernes	<b>Fam</b> Les impuxibles	21

**ABONAMENDUTIK KANPO / FUERA DE ABONO**

maiatzak 5 mayo	ostirala / viernes	<b>Mastodonte</b> Asier Etxeandia	23
maiatzak 7 mayo	igandea / domingo	<b>Elkarrekin sortu</b> Euskadiko Orkestra	24
maiatzak 14 mayo	igandea / domingo	<b>Houdini, el mago del club</b> Mago Sun	25
maiatzak 18 mayo	osteguna / jueves	<b>Fantasia</b> Eñaut Elorrieta	26
maiatzak 26 mayo	ostirala / viernes	<b>Sole Giménez</b> Poetas en mayo	27
maiatzak 27 mayo	larunbata / sábado	<b>Buenismo show</b> Quique Peinado, Henar Álvarez, Manuel Burque	28
ekainak 17 junio	larunbata / sábado	<b>Martita de Graná</b> Vitamin Producciones	29
ekainak 24 junio	larunbata / sábado	<b>Benito Lertxundi</b> Ospakizun gauean	30

**MUSIKA / MÚSICA****KONTZERTU HANDIAK / GRANDES CONCIERTOS**

apirilak 22 abril	larunbata / sábado	Geraldine Ramírez&BilbaoSinfonietta	32
maiatzak 19 mayo	ostirala / viernes	Cuarteto Casals. Furgaren artea / El arte de la figa	32
ekainak 15 junio	osteguna / jueves	La tempestad. Nuria Espert	33

**UDAL MUSIKA BANDA / BANDA MUNICIPAL DE MÚSICA**

maiatzak 24 mayo	asteazkena / miércoles	Migrazio-soinuak / Sonidos migratorios	34
------------------	------------------------	--	----

**EUSKADIKO ORKESTRA**

apirilak 26 abril	asteazkena / miércoles	Arimatik / Desde el alma	35
maiatzak 8 mayo	astelehena / lunes	Pasioa / Pasión	35
ekainak 8 junio	osteguna / jueves	Gainditzea / Superación	35

**GIZARTE ETXEETAKO ANTZOKIETAN IKUSKIZUNAK / ESPECTÁCULOS EN TEATROS DE LA RED DE CENTROS CÍVICOS****IKUSKIZUNA IBAIONDON / EL ESPECTÁCULO EN IBAIONDO**

maiatzak 26 mayo	ostirala / viernes	<b>Las aves</b> Compañía La calórica	37
ekainak 9 junio	ostirala / viernes	<b>Eclipse total</b> Compañía Pont Flotant	38

**JIM AKTUAL**

apirilak 20 abril	osteguna / jueves	<b>Platea</b> Tripak	39
maiatzak 11 mayo	osteguna / jueves	<b>Nevenka</b> Histrión Teatro	40



# **ANTZERKIA TEATRO**

**HELDUENTZAKO ANTZERKIA  
TEATRO ADULTO**

**EUSKARAZKO ANTZERKIA  
TEATRO EN EUSKERA**

**UMORE GIROAN  
POR HUMOR AL ARTE**

# Paraíso perdido

Coproducción de Teatre Romea, Grec 2022 Festival de Barcelona y Centro Dramático Nacional  
Teatre Romea, Bartzelonako Grec 2022 Jaialdia eta Zentro Dramatiko Nazionala

apirilak 21 abril, 19:30

John Miltonek 1667an argitaratutako poema epikoak gizakiaren erorketaren tragedia kontatzen du, baita Satanen erorketarena ere. Miltonen Satanek, zeruko tiraniaren aurrean matxinatzen den errebeldea sinbolizatzen du. Izan ere, gizakia erori aurretik, aingeru eroriaren istorioa dago, porrot egin zuen matxinadaren eta haren ondorioen istorioa, gizakien patua baldintzatu baitzuen. Baina, honelakoak gara gure patua horrela idatzi izan zelako ala sinemenek gure patua horrela idaztera eraman gaituztelako?

*Paradisu Galdua* eta Biblia sinesgarri izan daitezkeen liburuak dira edo interpreta ditzakegunak, poesiarik ederrenak bailiran. Agnostiko hazi nintzen, zalantza egiteko gaitasunean sinesten dut. Satanek erronka egiten dit gaur, Jainko, sortzaile, autore deitzen den horri galderak egiteko. John Miltonek, itsu hilezkor horrek, iluntasunean gidatzen gaitu. Iluntasuna gorde digutelako obeditzen ez dugunoi. Sagarra, izan Edurnezuriren sorginarena edo Deabruarena, oso gozoa dagoela uste dugunoi. Eta jatorrizko bekatua ikaragarri ona. Eta Jainkoak badaki.

Andrés Lima

El poema épico de John Milton, del año 1667, explica la tragedia de la caída del hombre y la de Satanás. El Satanás de Milton simboliza al rebelde sublevado contra la tiranía del cielo. Porque antes de la caída del hombre está la historia del ángel caído, de una rebelión fracasada cuyas consecuencias condicionarán el destino de la humanidad. Pero, ¿somos así porque así fue escrito nuestro destino o porque nuestras creencias nos llevan a escribirlo así?

*Paraíso Perdido*, o la Biblia, son libros en los que podemos creer o que podemos interpretar, como las más bellas poesías. Me eduqué agnóstico, creo en la capacidad de la duda. Satanás me reta a hacerle preguntas a ese que se llama Dios, creador, autor. Y John Milton, este ciego inmortal nos guía en estas tinieblas. Porque para los que no obedecemos se nos reservan las tinieblas. Para los que creemos que la manzana, ya sea de la bruja de Blancanieves o del Demonio, está muy buena. Y el pecado original extraordinario. Y Dios lo sabe.

Andrés Lima

Testua / Texto: Helena Tornero

Zuzendaritza / Dirección: Andrés Lima

Dramagintza / Dramaturgia: Helena Tornero, Andrés Lima

Antzezleak / Intérpretes: Pere Arquillué, Cristina Plazas, Lucía Juárez, Rubén de Eguía, Elena Tarrats, Laura Font

Teatro Principal Antzokia

Antzerki abonamendua / Abono teatro

24/18/12 euro

90m



# Ojos que no ven

## Entrecajas Producciones

maiatzak 12 mayo, 19:30

Familia batek batuta ospatzen duenean, batuta jarraitzen du. Baina zenbait arau bete behar dira: ezin da hainbat gairi buruz hitz egin, beste alde baterantz begiratu behar da minez zaudenean, aiztoak saihestu behar dituzu eta irribarre egin, ezin da politikaren aipamena ere egin, Andres osaba aipatu ere ezin da egin, ez eta non egongo den galdetu... eta, jakina, zalantzatan bazabiltza erantzun batean, amari begiratu, berak jakingo baitu zer esan behar duzun.

Eta onik ateratzea lortzen baduzu, biharamuna besterik ez zaizu geldituko, zauri txikiren bat ariman eta ilusio handia hurrengo afaria heltzeko.

Familia harremanei buruzko komedia kostunbrista dibertigarria.

Komedia beltzaren itxura hartzen duen kritika zorrotz honek familia batek ehuntzen dituen gezurrak jorratzen ditu.

Dramak berak eta pertsonaien miseriek barre eragiten digute oso hurbilak iruditzen zaizkigulako.

Cuando una familia celebra unida, permanece unida. Pero hay que seguir ciertas reglas: no se puede hablar de ciertos temas, hay que mirar hacia otro lado cuando algo te duele, esquivar los cuchillos y sonreír, nada de política, no se menciona al tío Andrés ni se pregunta: ¿donde estará?... y, por supuesto, si dudas en una respuesta, mira a tu madre, que ella sabrá lo que tienes que decir.

Y si consigues salir ileso, solo te quedará la resaca, alguna pequeña herida en el alma y mucha ilusión para que llegue la próxima.

Divertida comedia costumbrista sobre las relaciones familiares.

Demoleadora crítica en forma de comedia negra que aborda las mentiras que teje una familia.

El propio drama y las miserias de los personajes nos parecen tan cercanas que nos provocan risa.

Egilea / Autoría: Natalia Mateo

Zuzendaritza / Dirección: Carles Alfaro

Antzezleak / Intérpretes: Mamen García, Mariola Fuentes, Javi Coll, Cecilia Solaguren, Jorge Roelas, Álvaro Fontalba, María Maroto

Teatro Principal Antzokia

Antzerki abonamendua / Abono teatro

24/18/12 euro

80 m



# Amistad

Teatro Español, Octubre Producciones, García- Pérez Producciones

maiatzak 20 mayo, 19:30

Dumas, Ufarte eta Manglanok hitz egin behar dute. Lagunak dira txikitatik, era guztietako jolasak partekatatu dituzte, eta ez zaie bururatzen jolasaren bidez hitz egitea baino modu hoberik. Egia ala ondorioa? Jolas arriskutsua da, adiskidetasuna bera jartzen dutelako jokoan... Egin hildakoarena, itxi begiak eta txalupariaren egiak entzungo dituzu...

Gizaki lotsatiak eta gezurtiak gara, baina aldi berean egia eta heroikoak, eta gutako askok jolasaren beharra dugu egia aurre egiteko. Bendarik gabe aurre egiteko, eta egia gure ahotik jaria dadin, jolasaren amaierak bakarrik itxiko duen iturri baten modura. Baina esandakoa, esanda dago. Eta egindakoa, eginda.

Bizitzari, oroitzapenei, adiskidetasunari eta denboraren igarotzeari buruzko gogoeta, umorez eta pentsamenduz betea. Barre-algara segurua ikuslearentzat, Juan Mayorgaren filosofiaz betea.

Dumas, Ufarte y Manglano necesitan hablar, son amigos desde niños, han compartido todo tipo de juegos y no se les ocurre mejor manera de hacerlo que jugando. ¿Verdad o te atreves? Se trata de un juego peligroso, porque es la amistad misma lo que ponen en juego... Hazte el muerto, cierra los ojos y escucharás las verdades del barquero....

Como seres humanos -tímidos y mentirosos a la vez que sinceros y heroicos- muchos de nosotros necesitamos del juego para encarar la verdad. Para afrontarla sin vendas y para que fluya en nuestra boca como un manantial que solo puede cerrar el final del propio juego... Pero lo dicho, dicho está. Y lo hecho, hecho está.

Una reflexión sobre la vida, los recuerdos, la masculinidad, la amistad y el paso del tiempo cargada de humor y pensamiento. Una carcajada segura para el espectador cargada de la filosofía de Juan Mayorga.

Zuzendaritza / Dirección: José Luis García Pérez

Testua / Texto: Juan Mayorga

Antzezleak / Intérpretes: Ginés Millán, Daniel Albaladejo, José Luis García Pérez

Teatro Principal Antzokia

Antzerki abonamendua / Abono teatro

18/12/6 euro

80 m



# El beso de la mujer araña

Manuel Puig idazlearen eleberrian oinarritua / Basada en la novela de Manuel Puig

maiatzak 25 mayo, 19:30

Zer da gizon izatea? Espetxean, Molina eta Valentín ziega berean daude. Molina gizon gorputza duen emakumea da, eta adingabe bat seduzitzeagatik kartzelaratu dute. Valentín mundua aldatu nahi duen ekintzaile politikoa da, eta galdeketetan torturatu egin dute. Errealitatekin ihes egiteko, Molinak antzinako filmak gogoratuko ditu. Horietako protagonistekin eta bigarren mailako pertsonaiekin identifikatuko da, eta gogoeta egingo du bere bizitzaren eta nortasun politiko eta sexualaren inguruan. Zauri ireki ugari dituen barne-borroka eta orro egiteari uzten ez dion pantera.

Debekatutako istorioa da, eta agerian uzten du gizakiak duen maitatzeko beharra. Itxialdian, Valentín eta Molina bidaide dira bidaia existentzial batean, askapenerako bidaia batean. Isolamendu horretatik kanpo, heriotza eta tortura dira nagusi, eta, bien bitartean, bi protagonistek iraultzaren zain jarraitzen duen munduarekin egiten dute amets. Bolero usaina duen thrillerra da ia-ia.

Askapen politikorako nahitaezkoa da gorputzen askapena. Poncelaren eta Yebraren arteko interpretazio lehia bizia.

¿Qué es ser hombre?

En la cárcel, Molina y Valentín son compañeros de celda. Molina es una mujer en un cuerpo de hombre, encerrado por seducir a un menor. Valentín es un activista político, que quiere cambiar el mundo torturado durante los interrogatorios. Para escapar de la realidad, Molina evoca películas antiguas, se identifica con sus protagonistas y secundarios y reflexiona sobre su propia vida y su identidad política y sexual. Un combate interior con muchas heridas abiertas y una pantera que no deja de rugir.

Una historia prohibida que saca a la luz la necesidad de amar del ser humano. Valentín y Molina durante su encierro son compañeros de un viaje existencial, un viaje de liberación. Mientras fuera de su aislamiento reinan la muerte y la tortura, sueñan un mundo que sigue esperando una revolución. Es un casi thriller que huele a bolero.

La liberación política pasa por la liberación de los cuerpos. Todo un duelo interpretativo entre Poncela y Yebrá.

Egilea / Autor: Manuel Puig

Zuzendaria / Director: Carlota Ferrer

Antzezleak / Intérpretes: Eusebio Poncela, Ygor Yebrá

Teatro Principal Antzokia

Antzerki abonamendua / Abono teatro

18/12/6 euro

105 m



# Las guerras de nuestros antepasados

Miguel Delibes en eleberrian oinarritua / Basada en la novela de Miguel Delibes  
ekainak 1 junio, 19:30

Delibesek 1975ean argitaratutako eleberriaren ildo nagusia gerren indarkeriaren aurkako aldarrikapena da. Hasi protagonistaren izenetik —«Pacífico» (Bakezalea)— eta lanaren amaiera izugarriaraino, Valladolideko egileak gerrari uko egin eta bakearen eta indarkeriarik ezaren alde egiten du liburua- ren orrialdeetan zehar, bizitarako bide gisa.

Moldatzaile lanetan agerian jarri dut Pacífico Pe- rezen izaera konplexua, boteretsuekiko menpe- kotasuna, eta, azkenik, etsipen ia frantziskotarra, «Abue»-k, «Bisa»-k eta «Padre»-k kontaktzen zizkioten gerrei buruzko istorioek sehaskatik bertatik haren oroimenean grabatutako patuaren aurrean. Eleberriaren jatorrizko eskema errespetatu dut, hau da, Pacíficok espexeko psikiatrarekin izan- dako zazpi elkarrizketena. Horietan askatasun osoz eta Gaztelako landaguneko hizkerarik abe- ratsenarekin hitz egingo du, jatorrizko egileak irizpide oso onarekin erabaki bezala. Lehenik eta behin, Carmelo Gómez aktorearen parte-hartze bikaina izan dugula azpimarratu behar dut. Leongo herri batekoa da bera, eta gogo biziz eta ezagutza handiarekin aritu da lanean obra honetan.

Eduardo Galán

Un grito contra la violencia de las guerras es la línea maestra de esta novela de Delibes publicada en 1975. Desde el nombre del protagonista, Pacífico, hasta el final terrible de la obra, el autor vallisoletano defendió a lo largo de sus páginas la paz frente a la guerra y la no violencia como camino de vida.

Como adaptador he querido destacar el carácter complejo de Pacífico Pérez, su sumisión a los poderosos, su resignación casi franciscana ante un destino grabado en su memoria desde la cuna con las historias de las guerras que le contaban el Abue, el Bisa y Padre... He respetado las siete entrevistas mantenidas por Pacífico con el psiquiatra de la prisión. En ellas se expresa con plena libertad y con el mejor lenguaje rural castellano, que con tanto acierto le concedió su autor original. Reconozco aquí la gratísima colaboración recibida por parte del actor Carmelo Gómez (natural de un pueblo de León), que con tanto entusiasmo como conocimiento ha trabajado en la pieza.

Eduardo Galán

Zuzendaritza / Dirección: Claudio Tolcachir

Antzerki-egokitzapena / Adaptación teatral: Eduardo Galán

Antzezleak / Intérpretes: Carmelo Gómez, Miguel Hermoso

Ekoizpena / Producción: Jesús Cimarro

Teatro Principal Antzokia

Antzerki abonamendua / Abono teatro

18/12/6 euro

100m



# Zeozertan dabil baina ez dakit zertan

## Metrokoadroka

Apirilak 19 abril, 19:30

Etxe bat, edozein etxe. Egongela bat, edozein egongela. Hiru lagun, elkarri galdezka: “Gu familia bat gara?”. Antzezlanari hasi eta ikusleak ez du argi izango zein den hiru pertsonaien arteko harremana, baina bere ekintzen harira joango da deskubritzen hiruko honek ezkututzen duena. Hari horretan, familiari loturiko galderak, kontraesanak eta umorezko zirtoek zeharkatuko dute antzezlanari.

Familiaren ideiatik tiraka sitcoma eta poesia bisualaren arteko antzezlanari osatu du Metrokoadroka kolektiboak. Helburua honakoa izango da: jendeak gertuko sentituko duen antzezlanari bat egitea, edonork bere egin dezakeen gai batean oinarritua, era berean estetika aldetik esperimendatuz eta arriskuak hartuz.

Una casa, una casa cualquiera. Un salón, cualquier salón. Tres amigos que se preguntan: «¿Nosotros somos una familia?». Comienza la obra y el espectador no tendrá claro cuál es la relación entre los tres personajes, pero al hilo de sus acciones irá descubriendo lo que esconde este trío. En este sentido, las preguntas sobre la familia, las contradicciones y los giros humorísticos recorrerán la obra.

El colectivo Metrokoadroka ha compuesto una obra de teatro entre sitcom y poesía visual tirando de la idea de familia. El objetivo será realizar una obra de teatro en la que la gente se sienta cercana, basada en un tema que cualquiera pueda hacer suyo, experimentando y asumiendo riesgos desde el punto de vista estético.

Konpainia/Compañía: Metrokoadroka.

Zuzendaritza/Dirección: Marina Suarez Ortiz de Zarate, Oier Guillan.

Aktoreak/Intérpretes: Maite Aizpurua, Edurne Azkarate, Javier Barandiaran.

Jantziak/Vestuario: Idoia Beratarbide.

Ekoizpena/Producción: Oscar Picazo (ENTER Banaketak).

Argiak/Iluminación: Junki Mayo.

Soinua/Sonido: Patxi Suinaga.

Esenografia laguntzailea/Ayudante de escenografía: Alvaro Ledesma.

Teatro Principal Antzokia

Euskera antzerki abonamendua  
Abono teatro en euskera

15 euro

70 m



# Hau ez da gerra bat

## Thusia, Piszifaktoria, Teatro Principal Antzokia

maiatzak 10 mayo, 19:30 - Erabateko estreinaldia / Estreno absoluto

*Hau ez da gerra bat* formatu handiko lan bat da, espazio eszenografiko ikusgarri batekin. Unibertso dramatiko berritzaile bat eskainiko digu, antzezlanaren inguruan eraikiko diren hainbat ekintza transmediaren bitartez: pertsonaien iragana ezagutzeko audioak, disko bat piezaren soinu-bandarekin, *Bunker* izeneko aurre-ikuskizun berezi bat eta euskara ikasleentzako material didaktikoa. XXI. mendeko harribitxi bat.

Lei eta Zan-en arteko amodioa azkenetan dago. Den-denak huts egin du bien artean eta, gerrazelaikit ihes egiten duten bitartean, iheserako zubi guztiak erretzeari ekin diote. Orduantxe, Magenta agertu da, piztu berri den gerrako frontetik datorren soldadu gupidagabea. Fikzioaren bidez, giza harremanen porrotaren atzean dagoen errealitatea ulertzen lagunduko digun lan bat, espazio emozional eta poetiko berezi batean eraikia.

*Hau ez da gerra bat* es una obra de formato grande, con un gran espacio escénico muy atractivo y una propuesta integral especialmente innovadora. Hemos construido un universo dramático innovador, mediante diferentes acciones transmedia que girarán en torno a la obra de teatro: piezas de audioficción para conocer el pasado de los personajes, un disco en vinilo con la banda sonora de la pieza, un pre-espectáculo llamado *Bunker* y material didáctico para estudiantes de euskera. *Hau ez da gerra bat* es una rara avis del siglo XXI.

El amor entre Lei y Zan agoniza. Todo ha fallado y, en la huida del campo de batalla, tratan de quemar todos los puentes que se encuentran a su paso. Entonces, aparece Magenta, un soldado despiadado que asegura venir del frente de una guerra que acaba de estallar. Construido sobre un espacio emocional y poético de gran calado, este trabajo trata de ayudarnos, mediante la ficción, a entender la realidad que se esconde tras el fracaso de las relaciones humanas.

Antzezleak / Intérpretes: Aiora Sedano, Gabriel Ocina, Irati Agirreazkuenaga

Gidoia eta zuzendaritza / Guión y dirección: Mikel Ayllon

Musika / Música: Igor Arzuaga

Eszenografia / Escenografía: Amaia Garate | Iñaki Ziarrusta (ATX Teatro)

Teatro Principal Antzokia

Euskera antzerki abonamendua  
Abono teatro en euskera

15 euro

75m



# Los días ajenos de Bob Pop

## El Terrat

ekainak 16 junio, 19:30

Besaulki bat, zutikako lanpara bat, eta liburu emblematico pila bat. Bob Pop, bere jantzi lotsaga-bearekin eta pastazko betaurreko mitikoekin, ikusleari barre eta dardara eragiteko prest dago. *Los Días Ajenos* liburuarekin, idazle tragicomikoa, iritzi handiko gizona eta Andreu Buenafuenteren kolaboratzailea, bere eta besteren egunkariaren bidez biluzten da.

*Los días ajenos de Bob Pop* ahotsez eta oroitzapenez beteriko ikuskizuna da, Bob Popek sortua eta antzetzua. Bere *Días Ajenos* liburuan oinarritzen da, eta literaturaz eta egiazkotasunez, umorez, eta analisirako eta sintesirako gaitasunez jositako bakarriketa bat da. Esperientzien collage bat, azken urteetako pertsonaia transgresoreenetako baten eskutik, bere begirada eta enpatiarekin.

Un sillón, una lámpara de pie y un montón de libros emblemáticos. Bob Pop, con su traje desenfadado y sus míticas gafas de pasta, se prepara para provocar al espectador un volcán de risas y estremecimientos. Con *Los días ajenos*, el escritor tragicómico, hombre de opinión y colaborador de Andreu Buenafuente se desnuda a través de los diarios, propios y ajenos, que día a día le influenciaron con sus palabras.

*Los días ajenos de Bob Pop* es un espectáculo de voces y memoria creado e interpretado por Bob Pop a partir de sus libros *Días Ajenos*; un monólogo (a veces) cargado de literatura y de una aplastante sinceridad, humor, capacidad de análisis y síntesis sorprendentes. Un collage de experiencias de la mano, la mirada y empatía de una de las personalidades más transgresoras y mordaces de los últimos años.

Egilea / Autor: Bob Pop

Zuzendaritzakidea / Codirección: Bob Pop, Andrés Lima

Antzezlea / Intérprete: Bob Pop

Teatro Principal Antzokia

Umore giroan abonamendua  
Abono por humor al arte

18/12/6 euro

100 m



# ¡Ay, Carmela!

## María Adán, Pepón Nieto

ekainak 23 junio, 19:30

Tolerantzia, elkar ulertzea, desberdintasunarekiko permisibitatea, berdintasuna, elkartasuna eta justizia soziala dituen mundu baten ametsa pitzatzen ari da, mundu faxista, bere intransigentzia, egoskorkeria eta burugogorkeriarekin, aurrera doan bitartean, ulertezin bezain geldiezin.

Carmela gure memoria eta errua da.

Carmela: bizitzarekiko eta besteekiko maitasunaren adibide, pertsona onen arimaren barruan dauden balioak.

Carmela: egun hauetan hain iraindua izan den ontasunaren aldarrikapen.

Carmela dibertigarria, distiratsua eta lotsagabea da. Sustrai hutsa, odol hutsa. Ez du asko pentsatzen, ingurukoekin bizi da, sentitu eta sufritu egiten du. Kulturarik gabeko izakia, sofistikaziorik gabea, aurreiritzirik gabea, haragi bizia dena, besteen minarekiko sentikorra.

Carmelak bere burua sakrifikatzen du ezin duelako mundu ustel batean bizi.

Eta guk arnasa hartzen dugu ahalik eta alaitasun eta sakontasun handienarekin berriro hasperenka hasteko: Ai, Carmela!

Nuestro sueño de un mundo de tolerancia, de comprensión, de permisividad hacia lo diferente, de igualdad, de solidaridad, de justicia social se va resquebrajando y el mundo fascista de intransigencia, terquedad, obstinación, testarudez avanza tan incompresible como imparablemente.

Carmela: nuestra memoria y nuestra culpa.

Carmela: ejemplo de amor hacia la vida y hacia los demás, valores que está dentro del alma de las buenas personas.

Carmela: reivindicación de la bondad tan denostada en estos días.

Carmela es divertida, brillante y descarada. Pura raíz, pura sangre. No piensa mucho, convive con los que la rodean, siente y padece. Un ser sin cultura, sin sofisticaciones, sin prejuicios, que es carne viva, sensible al dolor de los demás.

Carmela se sacrifica porque no puede vivir en un mundo podrido.

Y nosotros cogemos aire con la mayor alegría y profundidad posibles para volver a suspirar: ¡Ay, Carmela!

Egilea / Autor: José Sanchis Sinisterra

Antzezleak / Intérpretes: María Adán (Carmela), Pepón Nieto (Paulino)

Zuzendaritza / Dirección: José Carlos Plaza

Zuzendaritzako laguntzaileak / Asistentes de dirección: Steven Lance Ernst, Álvaro Pérez, Bruno López-Linares

Zuzendaritza laguntzailea / Ayudante de dirección: Rocío Vidal

Koreografia eta ahotsa / Coreografía y voz: Ana Cristina Mata

Musika / Música: Víctor Elías, Javier Vaquero

Jantzien-diseinua / Diseño Vestuario: Gabriela Salaverri

Eszenografia eta argitazpena / Escenografía e Iluminación: Javier Ruiz De Alegría

Teatro Principal Antzokia

Umore giroan abonamendua  
Abono por humor al arte

24/18/12 euro

110 m





**DANTZA**  
**DANZA**

# Ballet Nacional de Cuba

maiatzak 13 mayo, 19:30

Kubako Ballet Nazionala munduan diren dantza-konpainia ospetsuenetarikoa bat da, eta leku nabarmena du Hispanoamerikako kultura garaikidean. 2018an kultura ondare nazional izendatu zuten, Kubako ballet eskolaren adierazpen gorena izateagatik, dantza teatralaren tradizioa eta kultura nazionalaren funtsezko ezaugarriak uztartzen dituen berezko fisionomia lortu baitu.

Alicia Alonso prima ballerinak sortu zuen 1948an, tradizio erromantikoari eta klasikoari errespetua erakutsiz. 1959ko Iraultzarekin izugarritzko gorakada izan zuen konpainiak: bere errepertorioa aberastu eta koreografia-mugimendu indartsua sustatu zuen, bai eta dantzari, koreografo, irakasle eta dantzarekin, arte plastikoekin edo musikarekin lotutako beste sorkuntza batzuen garapena bultzatu ere.

Gaur egun, Viengsay Valdés prima ballerina da Kubako Ballet Nazionalaren zuzendaria.

El Ballet Nacional de Cuba es una de las más prestigiosas compañías de danza del mundo y ocupa un lugar prominente en la cultura hispanoamericana contemporánea. Ha sido reconocido en 2018 como Patrimonio Cultural de la Nación, como la máxima expresión de la escuela cubana de ballet, que ha logrado una fisonomía propia donde se funde la tradición de la danza teatral con los rasgos esenciales de la Cultura Nacional.

La compañía surgió en 1948, con Alicia Alonso como principal fundadora y primerísima figura, partiendo del respeto a la tradición romántica y clásica; con la Revolución en 1959 pasó a tener un auge vertiginoso, enriqueciendo su repertorio y promoviendo un pujante movimiento coreográfico y el desarrollo de nuevos bailarines, coreógrafos, profesorado y otras creaciones relacionadas con la danza, las artes plásticas o la música.

Actualmente el Ballet Nacional de Cuba está dirigido por la primera bailarina Viengsay Valdés.

## EGITARAUA / PROGRAMA

### LOVE FEAR LOSS

Koreografia/Coreografía: Ricardo Amarantes, Flandesko Royal Ballet-ek 2012an estreinatua / estrenada por el Royal Ballet de Flandes en 2012 (0.14 m)

### HIRU PRELUDIO / TRES PRELUDIOS

Koreografia / Coreografía: Ben Stevenson O.B.E., Harknees Youth Company-ko 1969an estreinatua/ estrenada en 1969 por la Harknees Youth Company (0.13 m)

### CONCIERTO DSCH

Koreografia / Coreografía: Alexei Ratmansky, New York City Ballet-ek 2008an estreinatua/estrenada por el NY City Ballet en 2008 (0.20 m)

ATSEDENALDIA / INTERMEDIO (0.20 m)

### ZAZPIGARREN SINFONIA / SEPTIMA SINFONIA

Koreografia / Coreografía: Uwe Scholz, Stuttgart-eko Balletak 1991an estreinatua/ estrenada en 1991 por el Stuttgart Estate Ballet (0.40 m).

Teatro Principal Antzokia

Dantza abonamendua / Abono de danza

30/15 euro

107 m (atsedena/descanso: 20 min)



# El lago

LaMov

ekainak 3 junio, 19:30

LaMov konpainiak proposatzen duen *Beltxargen aintzira* lanaren bertsio garaikide honetan, Víctor Jiménez koreografoak beltxargaren isiltasun handi, garbi eta ederra islatu nahi du dantzarien mugimenduen bitartez, eta animaliaaren aurpegi basatiari aurre egin. Ezinezko maitasun baten tragediara lerrokatutako klasikoaren hari narratibotik urrun, alegiazko aintzira honetan, gainazalean eta denok daramatzagun geruza sakonenetan murgiltzen gara, itxuraren eta benetako niaren dualtasunean. *El Lago* denok daramagun maskarari egindako kantua da, hura kendu eta gure biluztasunean bila dezagun. Ditugun bi —edo gehiago— aurpegiez hitz egiten du, bizitzaren eta heriotzaren arteko tentsioaz, denok ditugun aurkako sentimenduez, burura datozkigun nahigabeez, liluratzen gaituzten huskeriez eta atsekabetzen gaituzten ideiez, engainatzen gaituzten emozioez eta eramaten gaituen haserreaz.

En esta versión contemporánea de *El lago* de los cisnes que propone LaMov, el coreógrafo Víctor Jiménez busca que los bailarines plasmen en movimiento el majestuoso, puro y bello silencio del cisne y enfrentarlo a su cara más salvaje. Lejos del hilo narrativo del clásico abocado a la tragedia de un amor imposible, en este lago imaginado se abunda en la superficie y en las capas más profundas que todos portamos, en la dualidad de la apariencia y del yo auténtico. *El Lago* es un canto a la máscara que todos llevamos, para quitárnosla y acabar buscando en nuestra desnudez. Habla de las dos caras —o más— que tenemos, de la tensión entre la vida y la muerte, de los sentimientos encontrados que tenemos, de las contrariedades que nos asaltan en la cabeza, de las trivialidades que nos fascinan y de las ideas que nos atormentan, de las emociones que nos embaucan y de la ira que se nos lleva.

Zuzendaritza artistikoa / Dirección artística: Víctor Jiménez

Dantzariak / Bailarines: Mattia Furlan, Elena Gil, Paula Rodríguez, David Serrano, Alain Rivero, Imanol López, Jimena Martínez, Paula Aragón

Argitazpen-diseinua / Diseño de iluminación: Luis Perdiguero (A.A.I.-DiIVANT)

Eszenografia-diseinua / Diseño de escenografía: Vanesa Hernández (DiIVANT)

Eszenografia laguntzailea / Ayudante de escenografía: Francisco Rodríguez, Juan Manuel González (DiIVANT)

Soinua / Sonido: Andrés Lapresta

Jantzien diseinua / Diseño de vestuario: Arturo Guillén

Dantza irakaslea / Maestra de baile: Carolina Chico

Musiak / Música: Tchaikovsky y Jorge Sarnago

Teatro Principal Antzokia

Dantza abonamendua / Abono de danza

21/15 euro

60m



# Atalak 2.0 - Laboratorio Inés Aubert

## Imajinario posibleak / Imaginarios Posibles

ekainak 8 junio, 20:00

Mugimendu eta sorkuntza tailerra.

Vitoria-Gasteizko Udal Antzoki Sareak, ATALAK 2023 programaren barruan, tailer bat antolatu du Inés Aubert koreografoarekin. Koreografoak komunitate-ildoak garatzen jarraitzen du, eta koreografia komunikazio- eta ahalduzko tresna gisa jarri du dantzara hurbildu nahi duten guztientzat (aldez aurreko jakin ala ez), interes bereziarekin beste gaitasun, egoera edo dibertsitate funtzional batzuk dituzten kolektiboetan.

*Imajinario posibleak* tailerrean gorputza irudimenari irekitako espazio infinitua da, non denborak, espazioak eta mugimenduak gure gorputzak adierazteko tresna gisa ulertzeko aukeraz beteko gaituzten. Inés Aubertek mugimenduaren esplorazioa proposatzen du tailer honetan, gorputzaren kontzientziako, inprobisazioko eta dantza garai-kideko tekniketako esperientzietatik abiatuta. Mugimenduaren plazera eta garenaren edertasuna partekatzea da ideia.

Taller de movimiento y creación.

La Red Municipal de teatros de Vitoria-Gasteiz, dentro del programa ATALAK 2023, organiza un taller con la coreógrafa Inés Aubert, quien continúa el desarrollo de la línea comunitaria emplazando la coreografía como herramienta de comunicación y empoderamiento para personas que quieran acercarse a la danza (con o sin conocimientos previos) y con especial interés en colectivos con otras capacidades, situaciones o diversidad funcional.

En el taller *Imaginario Posibles* el cuerpo es un espacio infinito abierto a la imaginación donde el tiempo, el espacio y el movimiento nos llenarán de opciones para entender nuestros cuerpos como instrumentos de expresión. Inés Aubert propone la exploración del movimiento partiendo de experiencias de consciencia corporal, improvisación y técnicas de danza contemporánea.

La idea es compartir el placer del movimiento y la belleza de lo que somos.

Los resultados de estos tres talleres de danza inclusiva comunitaria se mostrarán al público en esta sesión gratuita.

Gonbidapenak: maiatzaren 26tik aurrera, Principal Antzokiko lehiatilan. Ikuskizuneko egunean, Félix Petite Antzokiko lehiatian ere bai

Invitaciones: a partir del 26 de mayo, en las taquillas del Teatro Principal Antzokia. Día de la función, también en taquilla del Teatro Félix Petite

Teatro Félix Petite Antzokia

info: [atalak.org](http://atalak.org)



# Los perros

## Led Silhouette - Marcos Morau

maiatzak 4 mayo, 19:30

Garai digitalean jaio direnak egoera ezegonkor batean daude, eta horrek gizagabete- eta isolamendu-prozesu baten aurrean jartzen ditu; horretarako, badirudi konponbiderik arrakastatsuen identitate bereizi bat edo marka pertsonal bat sortzea dela. Garaikidetasunak gorputz hauskorak suntsitzen ditu, zaurgarrienak zatikatzen ditu eta baztertzen ditu matxinadarako aukeraren eta otzantasunaren artean zalantza egiten duten moldakaitzak. Etengabeko borroka ezezaguna den kontraesan horretan bestearen beharra sortzen da, ulermena, empatia, errukia eta maitasuna premiazko baliabide gisa.

*Los Perros* antzezlanak erresistentzia-egoera batera iristea proposatzen du, noraezean dabiltzan txakurrak bezala, zaurgarritasuna aitortuz dantzatzen eta matxinatzen diren txakurrak...

Errepikapenean eta katarsian bere zentzurik garbiena aurkitzen duen dantza kartsua: nekatu arte dantzatzea, lur jota egon arte zaunka egitea, hil arte bizitzea.

Bi gizon dantzan, dena amaitu eta dena berriro hasi arte.

**Proiektuaren zuzendaria / Dirección del proyecto:** Led Silhouette  
Ideia eta zuzendaritza artistikoa / Idea y dirección artística: Marcos Morau

**Antzezleak / Intérpretes:** Jon López, Martxel Rodríguez  
**Koreografia / Coreografía:** Marcos Morau antzezlearen laguntzarekin / Marcos Morau, con la colaboración de los intérpretes

ZUBIA proiektuak hainbat bitartekaritza-ekin-tza egingo ditu dantzaren eta DANTZA SAREAN zikloaren inguruan. Ziklo hori Proyecto Larruak eta Udalaren Antzoki Sareak antolatuta dute. Informazio gehiago martxoaren 14tik aurrera principalantzokia.org webgunean.

ZUBIA, proyecto de mediación con varias acciones en torno a la danza y al ciclo DANTZA SAREAN, organizado por Proyecto Larrua y la Red Municipal de teatros. Información a partir del 14 de marzo en principalantzokia.org

Los nacidos en la era digital asisten a un escenario inestable que los enfrenta a un proceso de deshumanización y de aislamiento para el que la solución más exitosa parece ser la creación de una identidad diferenciada o una marca personal. La contemporaneidad arrasa los cuerpos frágiles, desmiembra a los más vulnerables, deshecha a los inadaptados que dudan entre la posibilidad de rebelión o la docilidad. En esa contradicción, que es una lucha constante e incierta, surge la necesidad del otro, la comprensión, la empatía, la compasión y el amor como recurso urgente.

*Los Perros* propone alcanzar un estado de resistencia; un encuentro entre perros que deambulan, perros que se reconocen vulnerables, que bailan... que se rebelan...

Danza pasional que encuentra su sentido más puro en la repetición y en la catarsis: bailar hasta la extenuación, ladrar hasta el abatimiento, vivir hasta el desfallecimiento.

Dos hombres que bailan hasta que todo termine y todo vuelva a empezar.

Teatro Félix Petite Antzokia

Dantza sarean abonamendua / Abono Danza sarean

12 euro

50 m



# Abundance

## Osa+Mujika

maiatzak 12 mayo, 19:30

*Abundance* antzezlanak ezbaian jartzen du indarrean dirauen pentsamolde erromantikoa, eta ahalegintzen da printze eta printzesaren ideia desagerrarazten. Obraren helburua oraindik ere ukiezina den monogamia kolokan jartzea da. Izan ere, gure plazer eta desirak isilduz bizi gara, fantasiak gure baitan hegan dabilzten bitartean. Dantzaren bitartez, bost interpreteak jabetza, eskusibotasuna, zeloak eta leialtasuna garaitzen saiatuko dira. Erromantizismo toxikoa behera botatzeaz gain, gizarteak zahartzarolari buruz duen ikuspegi negatiboa desagerrarazi nahi du lanak, eta gure artean hain errotuta dagoen zahartzearen kontrako diskurtso-tik ihes egin. Hala, adineko pertsona boteretsu bat agertzen da publikoaren aurrean, bere askatasuna bete-betean baliatuz eta mitoak eta aurreiritziak eraitsiz. Bere bizipenetatik abiatuta desioen unitertso horretaz guztiaz hitz egingo dio belaunaldi berriari, eta erabakiak hartzeko beharrezko tresnak emango dizkio.

Zuzendaritza / Dirección: OSA+MUJIKA  
 Dramagintza+Koreografia / Dramaturgia + Coreografía: Jaiotz Osa  
 Antzezleak/ Intérpretes: Cristina Aldasoro, Carlos Ojeda, Maddi Ruiz de Loizaga, Rafke Van Houplines, Jaiotz Osa  
 Jantziak+Esenografia / Vestuario + Escenografía: Xabier Mujika  
 Aregitazpena / Iluminación: Alvaro Estrada  
 Musika/ Música: Garboto  
 Argazkiak/Fotos: Mariló Miguez  
 Bideoa / Vídeo: Etanowski

*Abundance* pone en jaque la ideología romántica en la que seguimos, intentado acabar con el príncipe azul o la media naranja. La obra cuestiona la monogamia, ese esquema social y amoroso intocable en el cual seguimos. Un modo de vida donde los deseos y los placeres del individuo siguen oprimidos pero las fantasías vuelan por las mentes. Los cinco intérpretes bailan hasta derribar ese amor que tiene como fin la posesión, la exclusividad, los celos y por qué no, la fidelidad. Además de derribar el romanticismo tóxico, la obra pretende acabar con la visión negativa que tiene la sociedad de la vejez y huir del discurso antiedad tan instalado entre nosotros. Así, se presenta ante el público a una persona mayor poderosa, ejerciendo en plenitud toda su libertad, derribando mitos prejuicios. Ella será quien desde su experiencia hablará de todo este universo de deseos a la nueva generación, a la que dotará de herramientas necesarias para tomar decisiones.

Teatro Félix Petite Antzokia

Dantza sarean abonamendua / Abono Danza sarean

12 euro

52 m



# Les impuxibles

ekainak 2 junio, 19:30

Georges Canguilhem filosofoak dioenez, “bizirik dauden forma guztiak munstro normalizatuak dira”.

FAMeko sei antzezleak (Ariadna, Clara, Elena, Kathy, Sandra eta Laila) sei artxibo bizidun izango dira, hezur-haragizko sei dokumentu.

Haien eskarmentua jarriko dute jokoan, elkadura-nahasmenduei, zahartzeari, naturala denaren pornifikazioari eta baimenari edo onarpenari buruzko hainbat ipuin garaikiderekin. Azken batean, hainbat eredu okupatu (eta politizatu) duten tokia da gorputza.

Geure buruarekin autoestimua bidez eta besteekin harreman sexoaftektibo bidez nola erlazioatzen garen hausnartzera gonbidatzen gaitu FAMek, gorputza aldi berean arazoa eta konponbidea dela deskubritzeko.

Gorputzen atsedenen aldeko requiem bat izaten hasten dena, aniztasunaren, afektuen, ekintzen eta grinaren aldeko himno/dantza bihurtzen da. Esnarazten gaituen guztiak, askatzen eta mugak kentzen dizkigu.

Egileak/ Autoría: Les Impuxibles, Judit Colomer, María Velasco  
 Zuzendaritza /Dirección: Ariadna Peya, Clara Peya  
 Konposizioa eta interpretazio musikala / Composición e interpretación musical: Clara Peya  
 Koreografia / Coreografía: Ariadna Peya  
 Testua / Texto: María Velasco  
 Antzezleak / Intérpretes: Sandra Pujol, Kathy Sey/Yolanda Sikara, Helena Gispert, Maisa Sally-Anna Perk, Ariadna Peya, Clara Peya

Dice Georges Canguilhem que “todas las formas vivas son monstruos normalizados”.

Las seis intérpretes de FAM, Ariadna, Clara, Elena, Kathy, Sandra y Laila, se presentan como seis archivos vivientes, seis documentos de carne y hueso. Ponen en juego su experiencia (encarnada), pero además una serie de cuentos contemporáneos que hablan de los trastornos de alimentación, el envejecimiento, la pornificación de lo natural y el consentimiento. En definitiva, el cuerpo como espacio ocupado (y politizado) por diferentes modelos.

FAM invita a preguntarse por cómo nos relacionamos con nosotras mismas a través de la autoestima y con el resto a través de las relaciones sexuales, para descubrir que el cuerpo es al mismo tiempo el problema y la solución.

Lo que comienza siendo un réquiem por el descanso de los cuerpos, se transforma en himno/danza por la diversidad, por los afectos, las acciones, las pasiones... Todo aquello que nos desentumece, nos despierta y descoloca los límites.

Teatro Félix Petite Antzokia
Dantza sarean abonamendua / Abono Danza sarean
12 euro
80m





**ABONAMENDUTIK  
KANPO  
FUERA DE ABONO**

# Mastodonte

## Simplemente perfecto Tour. Asier Etxeandia - Enrico Barbaro

maiatzak 5 mayo, 19:30

Mastodonte bueltan da ikuskizun berri batekin eta formatu desberdin bat erantsi dio bere musika-proposamen oso pertsonalari: *Simplemente perfecto Tour*, set elektronikoa bat eszena- eta soinu-espazio berri eta dotore batekin, zeina izen bereko albumaren abestietan jasotako funtsezko kontzeptuen irakurketa berrituaren emaitza baita. Eszenaratze aske eta biluzia, beldurraren, minaren eta geure iruzurren antidoto gisa erritu kolektibo bat sortzeko asmoa duena. Islatzeko, hausnartzeko, zalantzan jartzeko, hunkitzeko eta ahalduntzeko ispilua.

Ez da beste kontzertu bat. Esperientzia sentzorial bat da, bizitza musikaren bidez ospatzeko bidaia emozional bat, eta gaur egungo zorakeriaren aurkako txerto gisa funtzionatzen du. Benetan nor garen jakin gabe hazteak, egokitu beharrak eta zahartzeak eragiten duten minarentzat baltsamo bat. Zeregin konplexua, kitzikagarria eta perfektua.

Mastodonte regresa con nuevo espectáculo, añadiendo un formato diferente a su personalísima propuesta musical: *Simplemente perfecto Tour*, un set electrónico acompañado con la creación de un nuevo y elegante espacio escénico y sonoro, con una renovada lectura de los conceptos clave contenidos en las canciones de su homónimo álbum.

Una puesta en escena libre y desnuda, que alberga el propósito de crear un ritual colectivo como antídoto al miedo, al dolor y a nuestros propios engaños. Un espejo en el que reflejarse, reflexionar, cuestionar, conmovir y empoderar.

No es un concierto más. Es una experiencia sensorial, un viaje emocional para celebrar la vida a través de la música, que funciona como vacuna contra el delirio de los tiempos actuales. Todo un bálsamo para el dolor que causa crecer, tener que adaptarse y envejecer sin saber, en el fondo, quiénes somos realmente. Una tarea y una misión compleja, excitante y simplemente perfecta.

Ahotsa / Voz: Asier Etxeandia

Baxua, gitarra, programazioak eta sintetizadoreak /Bajo, guitarra, programaciones y sintetizadores: Enrico Barbaro  
Ekoizpen-burua / Jefe de Producción: Javier Iturralde "Itu"  
Soinu-teknikaria / Técnico de sonido: Adolfo Sánchez Mesón  
Backline- teknikaria / Técnico de backline: Victor Humanes  
Argitazpen-diseinua eta teknikaria 7 Diseño y técnico de iluminación: Francisco Manuel Ruiz "Chiqui"  
Jantzien diseinua / Diseño de Vestuario: Ana Locking

Teatro Principal Antzokia

Abonamendutik kanpo / Fuera de abono

24/18/12 euro

90-120 m



# Euskadiko Orkestra

## Elkarrekin sortu (parte hartzeko kontzertua/concierto participativo)

Maiatzak 7 mayo, 18:00\*

Inoiz galdetu al diozu zeure buruari zein soinu izango lukeen marrazki edo eskultura batek? Zer sonoritatek adieraziko luke hobeto haizea edo euria? Nola deskribatuko zenuke musikarekin mugimendu bat? Lerro bat, marrazki bat? Sentimendu bat? Begirada bat? Kontzertu honetan, Euskadiko Orkestrako musikariek galdera horiei musikarekin jolastuz erantzuteko erronka izango dute, gure publiko gaztearen proposamenak eta gaurkotasun handiko erreperorioa oinarri hartuta. Pantaila batekin, ordenagailu batekin eta musika-teknologia aurreratuenarekin, interpreteek eta ikus-entzuleek musika-konposizioaren sekretuak ezagutzeko jolasa partekatuko dugu.

¿Te has preguntado alguna vez cómo sonaría un dibujo o una escultura? ¿Qué sonoridad expresaría mejor el viento o la lluvia? ¿Cómo describirías con música un movimiento? ¿Una línea, un dibujo? ¿Un sentimiento? ¿Una mirada? En este concierto músicas/os de Euskadiko Orkestra tendrán el reto de responder a estas preguntas jugando con la música a partir de las propuestas de nuestro público joven y de un repertorio de rabiosa actualidad. Con una pantalla, un ordenador y la tecnología musical más avanzada, intérpretes y público jugaremos a descubrir los secretos de la composición musical.

24 |

\*Kontzertuaren aurretik, 16:45ean, sentsibilizazio-tailer bat eskainiko da, osagarria, aukerakoa eta doakoa.

Antes del concierto, a las 16:45, se ofrece un taller de sensibilización, complementario, opcional y gratuito.

Invitaciones en taquilla. Aforo limitado

Gonbidapenak lehiatilan. Leku murriztuak

Teatro Principal Antzokia

Abonamendutik kanpo / Fuera de abono

55 m

6 urtetik aurrera / a partir de 6 años

6 euros



# Houdini, el mago del club

## Mago Sun

maiatzak 14 mayo, 18:00

Disney Channeleko Club Houdini telesail ezaguneko magoak, Sun Magoak, *Houdini, el mago del Club* ikuskizun paregabea dakarkigu: enigmak, agerpenak, desagerpenak, eta, jakina, ur-tangatik ihes egiteko saio liluragarria, zeinarekin berriro ere ilusioa piztuko digun eta ezinezkoa denarekin amestuko dugun. Ez huts egin!

Iñaki Ruiz de Galarreta Sun Magoa da. Magia Saria Nazionala irabazi zuen eta aditua da ezinezko ihesetan, ilusio handietan, desagertzeetan eta lebitazioetan, antzerkiko zein telebistako ikuskizunetan goza daitezkeen trebetasunak denak. Houdini saioan amets egingo dugu eta imajinatzen dugun gutzia “errealitate” bihur daitekeela ikusiko dugu.

El mago de la famosa serie Club Houdini, que emite Disney Channel, nos presenta su gran espectáculo *Houdini, el mago del club*, en el que no faltarán los enigmas, apariciones, desapariciones, y cómo no, el fascinante número de la fuga del tanque de agua, con el que *Mago Sun* conseguirá que volvamos a ilusionarnos y a soñar con lo imposible. ¿Te lo vas a perder?

Iñaki Ruiz de Galarreta, Premio Nacional de Magia y más conocido como Mago Sun, es experto en escapes extremos, grandes ilusiones, desapariciones y levitaciones, habilidades que se pueden disfrutar en sus espectáculos tanto de teatro como de televisión. En Houdini nos hará soñar y descubrirás que todo lo que imaginas se puede hacer “realidad”.

Idea / Idea: Mago Sun  
Gidoia / Guión: Iñaki Ruiz de Galarreta y Mago Murphy  
Dantzaria / Actriz Bailarina: Eva Rodríguez  
Aktorea / Actor: Guillermo Calero / Manu Rodríguez  
Zuzendaritza / Dirección: Miguel Molina  
Jantziak / Vestuario: Roland Martis

Teatro Principal	Antzokia
Abonamendutik kanpo / Fuera de abono	
15/10 euro	
70 m	
Publiko guztientzat / Para todos los públicos	



# Fantasia

## Eñaut Elorrieta

maiatzak 18 mayo, 19:30

*Fantasia* deitzen da Eñaut Elorrietaren disko eta bira berria.

Hamar kantu berriz osatzen den lan honetan Aitor Etxebarria izan du ekoizle eta bidelagun Eñautek.

Azken bi urteetan eskuz-esku egindako lanaren emaitza da *Fantasia* eta Eñauten berezko esentzia harrapatzen saiatu da Aitor, maitasuna hari duten kantu soil, bare eta ederrak biltzen dituen diskoan.

Kantu guztiak konposatu ditu artista Gernikarrak, eta berak idatzitako hitzez gain Uxue Alberdi, Iñigo Astiz, Jose Luis Otamendi edo Itziar Ugarte, Amaia Lasa idazleen letrak musikatu ditu.

Diskoan parte-hartu duten musikarien artean Felix Buff, Amorante, Fernando Neira eta Xabi Zeberio daude besteak beste.

Zuzenekoetan *Fantasia* laneko kantuez gain bere ibilbide osoko kantuak eskeiniko ditu Eñautek bere ohiko zuzeneko musikariak lagun: Ander Zulaika, Rubén Caballero, Fernando Neira eta Txus Aranburu kasu.

*Fantasia* es el nombre del nuevo disco y de la nueva gira de Eñaut Elorrieta. Aitor Etxebarria ha sido el productor y compañero de Eñaut en este trabajo realizado durante los dos últimos años, que consta de diez temas nuevos. Aitor ha intentado plasmar la esencia de Eñaut en un disco que, con el amor como hilo conductor, recoge canciones sencillas, tranquilas y de gran belleza.

Todas las canciones han sido compuestas por el artista gernikarra y, además de sus propias letras, ha musicalizado las letras escritas por Uxue Alberdi, Iñigo Astiz, Jose Luis Otamendi, Itziar Ugarte, Amaia Lasa.

Entre los músicos participantes en el disco se encuentran Felix Buff, Amorante, Fernando Neira y Xabi Zeberio, entre otros. En directo, además de las canciones de *Fantasia*, Eñaut ofrecerá temas de toda su carrera, acompañado por sus músicos habituales en directo.

Ahotsa, gitarra / Voz, guitarra: Eñaut Elorrieta

Gitarrak, koruak / Guitarra, coros: Ruben Caballero

Baxua / Bajo: Fernando Neira

Teklatuak, koruak / Teclados, coros: Txus Aranburu

90 minutuko iraupena izango duen kontzertuaren aurretik, Esna kanta dokumentala emango da (20 minutu)

Antes del concierto, que tendrá una duración de 90 minutos, se proyectará el documental Esna Kanta (20 min)

### ABESTIAK / CANCIONES

- |                   |                                    |
|-------------------|------------------------------------|
| 1- Preludio       | 10- Atlantida                      |
| 2- Fantasia       | 11- Suzko Lili                     |
| 3- Esna kanta     | 12- Dordoken dantza                |
| 4- Eguzki argitan | 13- Nire aitaren etxea             |
| 5- Euri herria    | 14- Deserriko kontradantza         |
| 6- Inesa Gaxen    | 15- Mendogoixaliarena              |
| 7- Bidasoa        | 16- Eñaut Bakarrik<br>(MAITATZEAK) |
| 8- Tren luzea     | 17- Zutaz letrak idazteko          |
| 9- Itsasoa gara   | 18- HARIAK                         |

Teatro Principal Antzokia

Abonamendutik kanpo / Fuera de abono

18/12 euro

120m



# Poetas en mayo

## Sole Giménez

maiatzak 26 mayo, 19:30

